

noaua

**Babes sarea osatu duten
hainbat herritarrekin
izan gara**

**Usurbilgo Elizako
erlojuari buruzko
erakusketa
zabalduko dute
uztailaren 1ean**



Argazkia: Ibai Arriola

**Usurbilgo Kultur Bira hastera doa
Jaietako egunez gain, uztaila osoa girotuko du**



NOAOA
BIDAIAK

Hipodromo Etorbidea, 10
LASARTE-ORIA. Gipuzkoa

943 37 36 13

Ordutegia:

09:30-13:30

Aurretiko hitzordua beharrezkoa da

info@noaoa.eus

LIZARDI LIBRYBENDA



·IKASTURTE BERRIRAKO
LIBURUAK SALGAI
Oporretarako koadernoak, testu liburuak,
eskolako materiala...

Etxebeste kalea, 1
☎ 943 361 115

**Santixabel bezperan
egunez taberna irekia!**

**ZERBITZU BERRIAK
ekainaren 26tik aurrera!**

ORAIN ASTEBURUETAN...
EGUNEAN ZEHAR **TABERNA IREKIA!**
ZATOZ GURE TERRAZARA!

OSTIRAL, LARUNBAT ETA IGANDE **GAUETAN
JATETXEA IREKIKO DUGU!**

AFAL EZAZU GURE TERRAZAN EDO JANGELAN
ALDEZ AURRETIK ERRESERBA EZAZU!

ASTEBURUKO MENUA
25€ (eguerdi eta gauetan ere!)

*Olarrondo
jatetxea*

USURBIL 943 360 376

626 686 036 www.olarrondojatetxea.com

Albisteak iruditan

Euskal Herriko Karta Soziala: “Zerbitzu publikoen berrindartzea premiazkoa da”

Eskualde mailako manifestazioa egin zen ekainaren 19an Hernanin, Euskal Herriko Karta Sozialak deituta. Pentsiodunen, etorkinen eta gazteen ordezkariak hitza hartu zuten manifestazioaren amaieran.

Pandemiak zerbitzu publikoen garrantzia agerian utzi duela adierazi zuen pentsiodunen ordezkariak: “Zerbitzu publikoen berrindartzea premiazkoa da, eta ezin dira esku pribatuetan utzi. Pribatutasunaren bidetik enpresa irabaziak sustatzen baitira. Gizarte mailako desoreka gainditzeko zerbitzu publikoa defendatu beharra dago”.

Ahmer Hernaniko kulturartekotasuna sustatzen duen elkarteak bat egin zuen Karta Sozialarekin. Guztiak gizarte bereko partaide garela adierazi zuen: “Atzeritar Legeak herritarrek bitan banatzen ditu: Batzuei eskubide guztiak aitortzen zaizkie. Besteei, ez. Eskubidea ahalmen modura ulertzen dugu: Jasotzeko ahal-



Eskualde mailako manifestazioa Hernanin egin zen. Argazkia: Aiurri.

mena izatea, ematekoa bezain beste”.

“Soilik herriak salba dezake herria”

Gazteen izenean, ekimenekin jarraitzeko deia egin zen: “Urtarrilaren 30eko Greba Orokorren ostean gaur izan da lehen

taupada. Baina argi eduki Buruntzaldeko herritarrok antolatzen jarraituko dugula helburu horiek errealitate bilakatu arte. Soilik herriak salba dezake herria. Lehenik bizitza!”. Txalo artean amaitu zen ekitaldia, Hernaniko Gudarien plazan.

Laburrean

Zirimara: “Datorren ikasturteko ordutegiak zehazten direnean, ahal bezain azkar jakinaraziko ditugu”

2020/2021 Eskola Kiroleko antolaketan lanean ari dira Zirimarako arduradunak, “baina Covid19ak sortutako egoera berezia dela eta, oraindik ezin dizuegu aurreratu datorren ikasturteko ordu-

tegiak zein izango diren. Hezkuntza Saitetik atera behar dituzten irizpideen zain gaude horretarako. Ahal bezain azkarren informatuko zaituztegu familiak antolatu ahal izateko”.

Berrogeialdian daudenentzat oharra

Udalak atez ateko sistema egokitu du COVID-19a izan edo berrogeialdian dauden etxeetarako. Kasu horietan, berebiziko garrantzia du Atez Ateko bulegora deitzeak: 900 776 776.

noqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Disenua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Inaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Imanol Ubeda

Polikromia bat oihan beltzean

Harreman estua izan dut musikarekin. Gaztetan ez nuen horrela planteatu. Hasiera batean ez zen desira serio bat, baina hala suertatu zen azkenean. Istripu zoriontsu bat, esan beharko nuke. Dena den, arraroa egiten zait nire identitatearen zati handi bat guztiz iragankorra den gauza bati loturik egotea. Musika ukiezina baita, soilik atzematen den momentuan existitzen da. Eta hala ere, mundua begiratzeko modua alda dezake. Gure burua munduan kokatzeko modua alda dezakeen bezalaxe. Musikak badu beste bertute bat: une zailak gainditzeko lagun diezaguke. Barru-barruan sentitzen duguna eraldatzeko ahalmena du eta gure inguruari buruzko pertzepzioa aldarazteko gaitasuna du. Gure aldaratean eragiten du. Indar handia du musikak”.

David Byrne musikariak *How music works* liburua idatzi zuen orain urte batzuk eta hitzaurretik hartu dut pasarte hau. Ez du ezer berririk esaten, baina lerro gutxitan musikari buruzko kontu asko argitzen ditu.

How music works edo musikaren funtzionamendua konplexuagoa da ordea. David Byrne-k berak aitortzen du. Musika bezain funtsezkoak baitira musikaren ingurukoak. Garrantzitsua da nola izan den erregistratua, nolako soinuakera duen, nork sortua edota nork interpretatua izan den, zein modutan erreproduzitzen den, nola banatzen eta nola saltzen den, noiz non eta norekin entzuten duzun... Eta hala ere, maiz misterio handia da musika.

Kantagilearen jardunak ordea, mistikotik gutxi du. Erreka urre bila joatea bezala da. Ia gehienetan, galbahetik

joaten da arratsalde osoan hartutako guztia. Eta berriro ekin behar. Ez dago besterik.

Azken asteotan, Mihiseren lehen diskoak gatibatuta nauka. Lehen aldiz entzun nuenetik, behin eta berriro itzultzen naiz Usurbilgo hirukotearen paisaia lehor eta sigi-sagatsuetara. *Kronik@* izena du diskoak. 10 adar ditu baina enborra bat eta bakarra da. Sortu ere, hala sortu dute. 10 txatalez osatutako pieza trinko bat ondu dute. Kantek banaka ondo funtzionatzen dute. Baina era berean, osotasun handiago baten parte dira. Horren seinale da pultsuari ondo eusten diola hasieratik bukaerara. Ariketa artistiko gisa, ikaragarri konplexua iruditzen zait. Mihisekoek aise egin dutela dirudi. Urre bila abiatu ziren eta hamar pipitarekin itzuli dira. Ez zen bidaia erraza izango. Urre bila dabilenari galdetu bestela.

Mihiseren *Kronik@*-k disko kontzeptualen markoa duela esango nuke. Erabili duten kolore-paleta oparoa da, ordea. Erritmo jostariak eta *hard* kutsuko armoniak, taupada hipnotikoak eta pasarte aratzak, geruza ilunak eta ostarte melodikoak, teklakuen psikodelia eta *noise* gitarak... Polikromia bat oihan beltzean. Bidea zabaldu nahian.

Eta berriz zaude zain, dio Mihisek lehen kantan. Iraganeko izuen itzulerak belhurtzen zaitu. Konfinamendu garaiko paseoetan. *Eta berriz zaude zain*. Melodia lehorrak burmuinean, olioia mihisean nola. *Eta berriz zaude zain*, noiz askatuko zain. Diskoak habia egin du nire baitan. Inoiz ekarriko al dizu aitzakia, behingoz eraldatzen hasateko bizia, guztia? Misterio handia da musika. Egia da. Ateoenak ere badaki.

Imanol Ubeda

Aritz Gorriti

Luis Aranalde

Ika-mika

Begiak irekitzeko garaia da

Iragan hurbila.

Harropuzkeria. Urkulluk, harro: “Ez naiz Zaldibarrera joango lan-istripu baten kausaz”. Age-rian, sare ustel handi bat, abor-rrak berak baino ustelagoa. Bi langile desagerturik, eta ebidentzia bat: agintari horiek gutxi bazuen interes ekonomikoak pertsonen ginetik jartzen dituzte. *Ustelkeria*. Epaitegiak dira min-tzo: De Miguel, Alonsotegi, Balentziaga, Bidegi... Kasu puntualak? Ez, gaitz estrukturala da. *Autoritarismoa*. COVID-19aren krisia dela eta, Gasteizko gobernuak ez du onartu eragile politiko eta ekonomikoen mahairik, ez du herritarron iritzirik aditu nahi izan. Bulego isolatueta hartu dituzte erabakiak. *Desbideraketa*. Zerbitzu publi-koak (osasun-sistema, zaintza,

hezkuntza...) ahul agertu diren honetan, non jarri dute lehentasuna? AHTaren edo Donostiako Metroaren obretan.

Hondamendia. Errauste-plan-taren keak eta Arkaitzerrekako arrainak hilik ikusi ditugu. Jaurilaritzako eta Aldundiko agintariak ikerketa oztopatu eta azalpen sinestezinak zabaldu dituzte. Hori da gureganako errespetuaren neurria.

Eskaskeria. Urkulluk zer lortuko, eta Kantabriako mugaren irekiera bi egunez aurreratzea. Bien bitartean, EAETik ezin joan Nafarroara edo Iparraldera. Hori da Urkulluren ikuspegia: nazionala? Ez, bakazionala. Txistea litzateke, horren atzean ikuskera politiko orokorra ez balego.

Orainean, lehengo lepotik

burua.

Krisi honek zer pentsa eman behar ligukeen arren, Gasteizko gobernuan daudenek mezu kezkarriak zabaldu dituzte dagoeneko. Petronorren, kutsaduraren tenpluan, ateratako argazkiak dena zioen irudi bakar batean: lehen bezala jarraitzeko asmoa dute. Munduko herrialde aurrerakoienak ekonomia ekologikorantz doazenean, hemen larrialdi klimatikoari kasurik egin gabe natura hondatzen segitu nahi dute.

Zerbitzu publikoak indartzerik ere ez dute planteatu. Adibidez, hezkuntza arloan, ba al da plan orokor seniorik datorren ikasturterako? Ba al da bitarteko nahikorik? Prestatu al dira irakasleak? Ez. Nola ba? Orain lehentasuna hauteskundeak

dira. Eta gero berandu izango da.

Etorrizuna.

Gauzak beste era batera egin daitezke. Usurbilen ikusi dugu zer den udala eta herritarrak batera aritzea eta desberdinen arteko akordioak lortzea.

Hori da bidea: konpromiso kolektiboa, dinamika komunitarioak, ahulak bazterrean ez uztea, ekonomia eraberritzea, eta sektore publikoa indartzea. EHBilduk horretan sinesten du.

Kutxa batean sartzen den paperak ez du, berez, mundua aldatuko. Baina desegoki erabiltzeak, edo ez erabiltzeak, gauzak dauden-daudenean utziko ditu. Eta ederki ikusi dugu zer den hori.

Usurbilgo EHBildu

Premian diren familientzako diru-laguntzei eustea eskatu du EAJ-k

Konfinamendua arintzen hasi bada ere, laguntzak jasotzen dituzten familien beharrak ez direla desagertu dio Josune Urkola bozeramaile jeltzaleak. “Horretarako berehala eta legezko berme guztiekin aurrekontuetan beharrezkoak izan daitezkeen aldaketak egitea” proposatu du alderdi jeltzaleak.

Usurbilgo EAJ udal taldeak ez-ohiko dirulaguntzak mantentzeko eskaria gauzatu zuen aurreko astean udaletxeko erregistroan. Udal aurrekontuetan beharrezkoak izan daitezkeen aldaketak egitea proposatu du.

Josune Urkola EAJ-PNVko bozeramailearen esanetan, “Covid19 birusagatik ezarri zen larrialdi egoerarekin batera Gipuzkoako Elikaduren Bankuak bere jarduna eten zuen. Horren ondorioz Caritas-en bidez elikagaiak jasotzen zituzten Usurbilgo 15 familia elikagai laguntzarik gabe geratu ziren. Hauen beharrei eta laguntza behar zuten familia gehiagori erantzuteko Usurbilgo udalak, gure babes osoarekin,



Usurbilgo EAJ-PNV udal taldeak ez-ohiko dirulaguntzak mantentzeko eskaria gauzatu zuen aurreko astean, udaletxeko erregistroan.

JOSUNE URKOLA, EAJ
“Udalari eskatzen diogu laguntza hauek ematen jarraitzea inolako etenik gabe”

ez-ohiko dirulaguntza lerro zuzen bat jarri zuen martxan 20.000 euroko funtsarekin oinarritzko elikadura bermatzeko helburuarekin. Honi esker, 33 familiak laguntza hori jaso ahal izan dute”.

EAJ-k aditzera eman duenez, “momentu honetan partida hori agortu egin da baina familia

hauen beharrak ez dira desagertu. Jakitun gara udal gobernu dirulaguntza hauek gizarte laguntzen bidez ematen jarraitu ahal izateko bideak aztertzen ari dela eta horrek guztiak beharrezkoak diren prozedurak eta epeak dakartzala berarekin” adierazi du Josune Urkola bozeramaileak. “Bitarte horretan Udalari eskatzen diogu laguntza hauek ematen jarraitzea inolako etenik gabe eta horretarako berehala eta legezko berme guztiekin aurrekontuetan beharrezkoak izan daitezkeen aldaketak egitea” proposatzen du talde jeltzaleak.

Posta bidez bozkatzeko, online eskaera

Uztailaren 2ra arte eskatu ahalko da posta bidez bozkatzeko Correoseko bulegoan. Ohi baino ordutegi zabalagoan aurkituko duzue irekita: astelehenetik ostiralera, 8:30-14:30 artean, larunbatetan 9:30-14:30 artean, eta uztailaren 12ra arte gutxienez, astearte eta ostegun arratsaldetan 18:00-20:00 artean.

Bulegoraino joan beharrik izan gabe, correos.es bidez ere telematikoki bideratu ahalko duzue eskabidea eta dokumentazioa jaso eta bete ostean posta bidezko bozka postariak norbere etxean jasotzeko aukera izango da. Bestela, uztailaren 10eko arratsaldeko 14:00ak baino lehen eraman beharko da Correoseko bulegora.



Bulegoraino joan beharrik izan gabe, correos.es bidez ere telematikoki bideratu ahalko duzue eskabidea.

Ika-mika

Ucin: herritarren salaketak udalean

Anerreka elkarteak bezala Udalari eta Eusko Jaurlaritzari hiru urte darimatzagu Jose Maria Ucin, S.A. enpresaren teilatutik tratamendurik gabeko emisioak ateratzen ez direla berma dezatela eskatzen.

Gogora ekarri behar dugu Udalak, 2018ko uztailaren Ucin S.A. enpresari emandako obra baimenean estalki berriak itxiak izango zirela ezartzen zela. Udalean bitan salaketa formalak aurkeztu dugu baldintza hau ez delako bete.

Herritarrek teiltatu horretatik tratamendurik gabeko keak ateratzen direlako edo herrian usain kutsakorrek barreiatzen direlako Udalari kexa adierazteko ere maiz deitzen diote.

Oraingo honetan, pauso bat haratago eman eta herritarrek ofizialki ere salaketa jarri dute: 2020ko ekainaren 1ean Ucin S.A. enpresaren instalazioen teilatutik ateratzen ziren keak eta usainengatik hogeitik gorako salaketak aurkeztu dira. Salaketan, Usurbilgo Udalari, eskudun den aldetik, ofizioz UCIN S.A. enpresari dagokion

zehapen-espedientea has dezala eskatzen zaio.

Tamalez, isurketak errepikatzen direlako salaketa masibo kanpaina honekin jarraitzen dugu, eta jada ekainaren 19ko isurketengatik bigarren salaketa-txanda hasi gara egiten. Herritarrek kanpaina honekin bat egitera animatzen ditugu eta informazio gehiago nahi izanez gero gurekin harremanetan jar daitezke helbide honetan: anerrekaelkatea@gmail.com

Beste aldetik, Anerreka Elkartek ikusten du Ucin S.A.k isurketa kutsakorrik

sortzen ez duela bermatzeko teiltatuaren itxiera beharrezko pausuen artean dagoela, baina ez da nahikoa. Horregatik, Udalari zein Eusko Jaurlaritzari alegazioak aurkeztu dizkiegu beraien eskumenak erabiliz, Jose Maria Ucin, S.A.-ri emandako Sailkatutako Jardueraren Lizentzia eguneratzeko eta 2020ko ekainaren 13tik Europa mailan indarrean dauden emisio baloreak eta isuriaren eten-gabeko jarraipenaren baldintzak txertatzeko.

Anerreka Ingurumen Elkartea

Mari Karmen Anza: “Aranjuezeko espetxeko baldintzak Picassentekoak baino askoz okerragoak dira”

Oso gogorra izaten ari da. Hala azaldu digu, egun Aranjuezen izan eta 11 urteko espetxealdia bete berri duen Olatz Lasagabaster presoaren ama Mari Karmen Anzak, hilabeteotan bizitzen ari direna. Olatz eta Patxi Uranga Aranjuezeko espetxean dira egun, Picassentekoan baino baldintza gogorragoetan. Hori gutxi ez eta koronabirusa tarteko, bisitak etenda dituzte martxoaz geroztik; Xua urtarrean espetxetik irten zenetik behin baino ezin izan du egon gurasoekin. Gogoan izan, Olatzek eta Patxik duela bi urtetik kalean behar zutela. Jasotako babesagatik esker ona adierazita, ezin garrantzitsuagotzat jotzen du Anzak mobilizatzen segitzea. Gogoan izan, Usurbilen Nahi Ditugu bilguneak euskal presoan eskubideen alde hilaren 26rako 20:00etan deitua du elkarretaratzea Mikel Laboa plazan.

NOAUA! Olatzek eta Patxik aspaldi kalean behar zuten arren, 11 urte bete dituzte espetxean. Etxeratu aurreko azken “urteurrera” espetxean.

Mari Karmen Anza: Gogorra izatea aurreikusten dugun urtea geratzen da. Baldintza oso gogorrak izaten ari dira.

Erietxean haurdunaldiari lotutako proba bat egin ostean, Olatz berrogeialdian izan dute. Zer egoeratan da egun?

Hilabete izan dute isolamenduan. Nolabait esatearren bizi-modu “normala” egiten ari da jada espetxean. Arroparik gabe egon dira baita, Picassentetik han zituzten gauzak ez zitzaizkielako iritsi.

Otsaila erdialdera lekuz aldatu zituzten Picassentetik Aranjuezera.

Bai. Patxiri ekainaren 4an heldu zitzaion eta Olatzi astebe-



“Covid19a tarteko, ezin izan dugu paketerik sartu espetxean, ezin izan dugu bisitarik egin”.

MARI KARMEN ANZA

“Patxik azken bisita martxoaren 15ean izan zuen. Olatz bisita hartara jada ez zen irten. Beraiek ez dute elkarrekin egoterik izan”

beranduago. Arropa paketeak ez zituzten aurkitzen eta ez zegoen Aranjuezera heldu zire-naren konstantziarik ere.

Arroparik gabe nola moldatu dira?

Modu txarrean. Picassentetik kasik jantzitakoarekin eraman zituzten Aranjuezera. Olatzek bi galtza eta lau bat kamiseta izango zituen. Patxik galtza bat eta kamiseta bat. Gauean garbitu eta goizean janzen zuen. Oraindik paketeak espetxera sartu ezinik gaude.

Koronabirusaren eraginez, imajina dezakegunez.

Covid19a tarteko, ezin izan dugu paketerik sartu espetxean, ezin izan dugu bisitarik egin. Postaz edo garraio

zerbitzu baten bidez bidaltzeko eskatu dute baina ez diete baimenik eman. Arropa behar dute, urtaroz ere aldatu gara. Behar duten arropa gabe dira. Asteburuan bisitak baimentzen badira ia paketea sartzea ahalbidetzen duten.

Konfinamendu garaia nola bizi izan dute haiek eta zuek?

Oso gogorra izan da haientzat, Xua ikusterik ez baitute izan. Guretzat baita; Xuak egun osoan hartzen baititu ahotan gurasoak. Egundik osoan gurasoak ikusi nahi dituela esanez. Berez egoera gogorra da, horri gehitu hiru hilabete eta erdi daramatzagula bisitan joan gabe. Xua Picassentetik irten zenetik ordu eta erdiko bisita bakarra izan du gurasoekin.

Bisitarik egin ahaliko bazenute, noiz edo nola izatea aurreikusten duzue?

Haurra jaiotzen denerako, Olatzek gu bisitan joatea eskatua du. Agian ospitalean bera ikusten utziko digute. Patxik ospitalera eramateko baime-na eskatu du. Baina hara era-

maten duten unean egokitu beharko genuke, une berean. Une oro dena airean dago, zer egin ondo jakin gabe bizi gara. Olatz eta Patxi zelda berean egongo zirela saldu ziguten mezu hura, ez da hala izan. Bakoitza leku batean eta modu txarrean bizi da. Aranjuezeko espetxeko baldintzak Picassentekoak baino askoz okerragoak dira. Egiten dituzten eskaerei ez diete erantzun ere egiten. Picassenten hilean ordu eta erdiko familia bisita bat genuen. Gero beraiek elkarren artean lau orduko elkarbizitza bisita bat zuten. Aranjuezen aldiz, hilean ordu eta erdiko familia bisita bat eta bi hilero elkarbizitzako hiru ordu eta erdiko bisita.

Oinarrizko eskubideen murrizketa beste behin.

Xuak 3 urterekin gurasoak ikusterik ez izatea salatzen da. Zer gutxiago gu joatea, nik ere alaba ikusi behar dut. Badakigu zein den egungo egoera, baina noizean behin egin daitezke salbuespenak eta baimen bereziak eman.

“Ez dakigu bisitak noiz hasi eta nola izango diren”

NOAUA! Covid19-aren eragina nola ari dira bizitzen? Olatz haurdunaldiaren azken txanpan da.

Mari Karmen Anza: Koronabirusaren gaiarekin lasai ikusten ditut. Ez dute kasurik izan han. Baina orain esan diete berriz, hilabete barrura arte ez dutela elkarrekin komunikatzeko aukerarik izango. Banekien espetxean ezerk ez zuela logikarik, baina orain askoz gutxiago. Olatz ondo dago, haurdunaldia ondo doa. Baina ez du arroparik ezta umea jaiotzen denerako, jaio berriarentzat. Ez du ezer. Nik hemen gauzak prest ditut baina ezin dizkiot bidali. Egiten dituzten eskaerei ezetz esan edo ez diete erantzuten. Ez dakigu bisitak noiz hasi eta nola izango diren.

Beste behin beste zigor erantsi bat baino gehiago.

Zigor erantsi garrantzitsua da. Picassentetik Aranjuezera 80 kilometro gerturatu dituzte, barregarria da. Picassentera (Valentzia) joaten adina denbora behar da. Picassenteko errepidea askoz lasaia da, han gure bizimodua antolatua



“Xuak esaten didanean gurasoak ikusi nahi dituela bai maitea, amonak ere bai, baina bitxitoak ez digu uzten joaten erantzuten diot”.

MARI KARMEN ANZA

“Eskerrak preso senideon artean elkarri laguntzen diogun, bestela galduta egongo ginen”

genuen. Lasai egoteko pisua genuen. Aranjuezera joateko, kanping bateko bungalow batera joan behar dugu, pisu bat alokatzea garestiegi baita.

Bisitak zerotik antolatzen hasi behar izan duzue berriz.

Bai. Eskerrak preso senideon

artean hartueman estua dugun eta elkarri laguntzen diogun, bestela galduta egongo ginen. Ahal dugun moduan moldatzen gara.

Etengabeko ziurgabetasun egoera horretan.

Hori da okerrera. Honela ezin da ezer egin. Xuak esaten didanean gurasoak ikusi nahi dituela bai maitea, amonak ere bai, baina bitxitoak ez digu uzten joaten erantzuten diot.

Konfinamendu garaian azken ostiraleko elkarretaratzeak

eten dira. Jasotzen duzuen babesagatik, garrantzitsua izango zen mobilizazio hauen itzulera, ezta?

Asko eskertzen da, babes izugarria da. Izugarri eskertzen dugu denen laguntza eta babesa. Besarkada handi bat denontzat. Hor jarraituko dugu. Olatz eta Patxi irteten direnean berdin.

Denborak emandako perspektibatik, nola oroitzen duzu Xua Gurasoekin Etxera plataformatik bideraturiko lanketa guttia?

Esker onez, jendeak lagundu duen guztiagatik. Badakizu zer sentitzen dudan? Amorruta, hainbeste jende lan handia egin, hainbeste ahalegindu eta lehen bezala gaudelako azkenean. Ezin duzue irudikatu, pena handia sentitzen dut. Plataforma bat egin dute Bilbon, beste haur baten, Iratiren alde, “Irati gurasoekin Euskal Herrira” izenekoa. Benetan guk baino zorte handiagoa izatea espero dut. Behintzat hemen egindakoak atzetik datozenentzat balio baldin badu, zerbait egingo genuen.

“2021eko ekainaren 19an dute irteera data”

NOAUA! Lehendik ere galdetu izan dizugu. Espetxe politika aldatu daiteke epe motz edo ertainean?

Mari Karmen Anza: Hala izatea nahiko nuke, izugarrizko gogoia dut, baina ez dut inoiz hala ikusi eta une honetan ere ez dut uste ezer aldatuko denik. Egoerak asko aldatu beharko luke. Guri ez zaigu egokituko, ia atzetik datozenek. Denak etxera etorri eta etxearekin egon daitezela. Behingoz sufrimendu hau guztia amaitu dadila. Denek

urte asko daramate espetxean eta aski da.

Indarrean den legedia aplikatzeaz baino ez gara ari.

Ez dugu gehiago eskatzen. Horrekin nahiko pozik izango ginateke. Ikusiko dugu zer gertatzen den.

Kalera atera eta eskubideok aldarrikatzeak ezinbesteko garrantzia izaten segiko du ezta?

Bai noski, zalantzarik gabe. Gure senideak badakigu irtingo direla, baina barruan

segitzen dutenekin, zer gertatuko da haiekin? Gero eta gehiago ahazten da gertatzen ari denaz. Barruan daudenekin zer gertatuko da, haietaz ahaztuko gara eta han utziko ditugu? Pentsatze hutsak hotzikara eragiten dit. Haietako askok espetxealdia bete dute jada eta espetxean segitzen dute. Denon aldetik zerbait jarri dezagun eta elkar errespetatzen gaiten. Zoritzarrez, auzi hau segituan konponduko denik ez dut uste. Olatzek eta Patxi 3. gradua eskatua dute. Eskatera

batzordetik pasa zen ekainaren 18an, baina ez diete ezer erantzun eta ez dut uste ezer emango dietenik.

3. gradua onartuko balitzaie, horrek zer eragin izango luke?

Kalera irteteko baimena izango lukete. 2021eko ekainaren 19an dute irteera data. Eguna kentzen goaz. Hala pentsatu behar dugu, positiboki. Haurra jaio dadila, dena ondo joan dadila eta elkar ikusi gaitzela.

Datorren astean abiatuko da Kultur Bira

Covid19-aren testu- guruan, hilabeteotan itzalia izan den herri giroa piztera, eta sektore kolpatuenetarikoa laguntzera datorren Usurbilgo Kultur Bira aurkeztu da egunotan. Uztailea kultura herrian barrena biran izango dugu; kulturaz blaituko dute udalerrri osoa. Egitasmo oparo honetara batu dira Usurbilgo nahiz hainbat herri-auzoetako jai batzordeak eta eragile gehiago. Prest dute egitaraua eta ekitaldiotarako sarrerak eskuratzeko usurbilgo.kultura.eus plataforma berria.

Covid19-ak eragindako osasun krisialdiak herri bizitza eten zuen martxoan. Kale giroa guztiz itzalia izan dugu hilabeteotan. Herri dinamika bermatzen zuen kultur eskaintza etenda, eta eskaintza honen sustatzaile diren sortzaileak, eragileak, kulturegileak “kalegorrian, umezurtz geratu ziren. Aldi berean itxialdian berrogeialdian gutariko askoren helduleku eta ipar izar izan den sektorea”, Kultur Biraren antolatzaileek ekainaren 19an Mikel Laboa plazan egindako agerraldian gogorarazi zute-nez.

Konfinamenduan emandakoa itzultzeko garaia

Ez baita ahaztu behar, Usurbilen bertan, Herriko Artixten eskutik 8 astez konfinamendu egunak nabarmen arindu diz-



Kultur Bira antolatzeko garaian, “deszentralizatzea zen helburuetako bat, pertsonen pilaketak saiheste aldera”.

ELKARLANEAN

“Usurbilgo Jai Batzordearen antolakuntza lanekin bat egin dute auzoetako jai batzordeek eta beste zenbait eragileek”

kigun “Sortuz bakardadea isolatuz” zikloaren baitan, herriko sortzaileek prestatutako 40 ekitaldiak. Guztiak streaming bidez zuzenean eskainiak, “borondate hutsez”. Horregatik uztailerako Kultur Bira antolatuta, “uste dugu orain dela unea gure sortzaileei, gure kulturegileei emandakoa bueltatzekoa. Horretara gatoz ekimen honekin”.

“Deseskalatze” prozesua abiatu zenean, maiatza hasieran, Jai Batzordea biltzen hasi zen. Konfinamendu aurretik, uztailaren 1etik 5era antolatzen

hasiak ziren jaiak birplanteatzeko prozesua abiarazi zuten. Prozesu hartatik jaio da uztailerako Kultur Biraren proposamena. “Pozik gaude hemen bilduta gauden kultur eragile eta herri mugimenduko ordezkari guztiok. Elkarlanean, oztopoz oztopo, lan ordu ugari igarota eta ilusioz betetzen gaituen proiektua” prestatu dute.

Bira herrian barrena

Beharrezko prebentzio neurriak hartuta ospatuko da uztailerako Kultur Bira. Protokolo bat prestatu dute. Ohiko neurriekin batera, “segurtasun tarteak, ekitaldietako sarrera eta irteerak ondo araututa eta seinaleztatuta izango ditugu”.

Ekitaldietako aforoa mugatua egongo da. Horretarako usurbilgo.kultura.eus ataria sortu dute; webgune berri honen bidez kudeatuko dute aforoa.

Aipatu plataformatik eskuratu ahalgo dira Kultur Birarako sarrerak. “Helburu nagusia tresna bat sortzea zen, sarre- rak herritarren artean ahalik eta modu bidezkoenean banatzeko”. Orain Kultur Bira- ra begira martxan jarri duten arren, “etorkizunean helburu anbizioosoago bat izango du; Usurbilgo kulturaren txoko digi- talean bilakatzea”.

Antolakuntza eta eskaintza deszentralizatua

Kaxkoan nahiz udalerriko herri eta auzoetara hedatuko dira hitzorduak. “Deszentralizatzea zen helburuetako bat, pertso- nen pilaketak saiheste aldera”.

Antolakuntza lanekin bat egin dute auzoetako jai batzordeek eta beste zenbait eragileek. Haiek gabe “nekez egingo ditugu herri-auzo horietan ekimenak”.

Egitarau oparoa uztaila osorako

Usurbilgo nahiz Euskal Herriko musika taldeen kontzertuak, herri kirolen eguna, bertso-saioa, antzezlanak, haurrei zuzenduriko ikuski- zun eta jolasak, herri-kirolak, ibilaldi neurtuak... Eskaintza oparoa prestatu dute uztaila- rako, Usurbilgo Kultur Bira-

ren antolatzaileek.

“Denetarik izango da eta ziur gaude gustu anitz asetzeko gai izango den eskaintza bat izango dela”, antolatzaile- leen esanetan.

“Ilusioarekin gaude”

Usurbilgo festak ospatzekoak

ziren egunetan, uztailaren 1etik 5era iragarri dituzte ekitaldi gehienak, baina hilabete amaierara arte astebururo zer ikusi eta zer entzuna izango da. “Ilusioarekin gaude, pozik gaude egindako lanarekin, orain zain egongo gara herriaren erantzunari. Denon

gustukoa izatea espero dugu. Hori izan da gure helburua egindako lan honekin”.

Usurbilgo Kultur Biran parte hartzera deitu dituzte herritarak. “Animatu nahi dugu herritar oro plataformara sartu, erregistratu eta izen ematera”.

Sarrerak usurbilkultura.eus atarian eskuragarri

Covid19-ak eragindako osasun krisialdiaren testuinguruan antolatu den uztaileko Kultur Birako ekitaldietarako sarrerak aurrez eta online eskuratu beharko dira; usurbilkultura.eus atari berrian. Hemen urratsez urrats egin beharrekoa:

1-usurbilkultura.eus webgunera sartu eta erregistratu. Izen abizenak eta NAN zenbakia eman beharko dira.

2-Nahi beste ekitaldietara joateko sarrerak eskatu ahalko ditugu.

3-Aukeratutako ekitaldien artean, norberarentzat lehenetasunezkoak diren bi ekitaldi hautatu ahalko dira; zozketa egiterakoan, kontuan hartuko ditu antolakuntzak.

4-Ekitaldia baino bi egun lehenago gutxienez, mezu elektroniko bat jasoko dugu izena erregistratzerakoan baliatu dugun helbidean, sarrerak egokitu zaizkigun edo ez jakiteko. Sarrerok QR kode bat izango



Sarrerak eskuratzeko zailtasunak dituenarentzat, bideo tutorial bat ipini dute Usurbil Udala youtube kanalean (noaueus web orrian ere ikusgai).

SARRERAK ESKURATZEKO

usurbilkultura.eus atarian sartu eta erregistratu. Izen abizenak eta NAN zenbakia eman beharko dira

dute. Gailu digital batean eraman ahalko ditugu ekitaldietara, edo inprimatuta.

Usurbildarrek lehenetasuna

Webgune erabilterraza izatea nahi duten hau, momentuz

uztaileko Kultur Birarako sarrerak erosteko baliatzeko jarri dute martxan. Baina etorkizunera begira ere, txartelen salmentarako atari bera baliatzea sustatu nahi dute.

Kultur Biraren kasuan, Usurbilen erroldatuak dauden herritarrek izango dute lehenetasuna. Aforoa bere mugara iristen ez bada, Usurbildik kanpo bizi direnek ere sarrerak zozketan parte hartzeko aukera izango dute.

Ekitaldi motaren arabera sa-

rretera kopuru ezberdina eskuratu ahalko da.

Hitzordua bakoitzak finkatua izango duen epe muga baten baitan, izena nahi adina ekitaldietarako eman ahalko da, baina haietako bi lehenetasunezko ekitaldi gisara nabarmendu ahalko ditugu. Lehenetasunezko ekitaldiok aintzakotzat hartuko ditu antolakuntzak, sarreraren banaketa egiterakoan.

Webgunea baliatzeko laguntza

Sarrerak online eskuratzeko argibideak behar dituenarentzat, bi ekimen iragarri ditu antolakuntzak. Bideo tutorial bat plazaratu dute Youtuben, Usurbilgo Udalaren kanalean. Aste hasieran Potxoenean saio praktikoa batzuk antolatzeak ziren. Ekimenon helburua, "gailu elektronikoak erabiltzera ohituak ez dauden pertsonengana" heltzea da.

Informazio gehiagorako:

943 371 999

usurbilkultura.eus

Usurbilgo Kultur Bira, egunez egun

Uztailak 1, asteazkena

■ 20:00 Artixten Gauda Atxegaldien, Bizkarreko skate parkean eta Txokoaldien.

Uztailak 2, osteguna

■ 16:00 Tor Magoa Oiardo Kiroldegian.
■ 16:00 Mus txapelketa Udarregi Ikastolako frontoian.
■ 22:00 Kontzertua Oiardo Kiroldegian: Mihise + Ezpalak.

Uztailak 3, ostirala

■ 12:00 Kolore festa Oiardo Kiroldegian.
■ 22:00 Kontzertua Oiardo Kiroldegian: Joseba Tapia.
■ 22:00 Kontzertua Santueanean: Ameba + Liher.

Uztailak 4, larunbata

■ 10:00 Familia plana Ar-

tzabalgo frontoitik abiatuta: "Zuku magikoaren bila".

■ 20:00 Bertso saioa Oiardo Kiroldegian. Ane Labaka, Amets Arzallus, Miren Amuriza, Unai Gaztelumendi.
■ 22:00 Kontzertua Santueanean: Natali + Izaki Gardenak.

Uztailak 5, igandea

■ 09:00 Ibilaldi neurtua Urdaiagako plazatik Andatzara.

Uztailak 10, ostirala

■ 20:00 Kontzertua Aginagako Eliza Zaharrean: Oreka TX.

Uztailak 11, larunbata

■ 18:00 Asier Kidam magoa Aginagako Eliza Zaharrean.

Uztailak 16, osteguna

■ 09:00-17:30 Jakin Jardunal-

diak Udarregi Ikastolan.

■ 20:00 Kontzertua Mikel Laboa plazan: Gartxot.

Uztailak 17, ostirala

■ 19:00 Antzerkia Olanoea plazan: "Skratx".
■ 20:00 Kontzertua Aginagako Eliza Zaharreko kanpoaldean: Malen eta Maddi.

Uztailak 18, larunbata

■ 20:00 "Birritan bortxatua" antzezlan eta Jurgi Ekizaren emanaldia Udarregi Ikastolako erdiko aretoan.

Uztailak 19, igandea

Herri Kirolen Eguna
■ 10:00 Sega ekitaldia Amitza-ren eskutik, Udarregi Ikastolaren pareko belardian.
■ 12:00 Gipuzkoako Harri Txi-

ki altxatze Txapelketa Dema plazan.

■ 18:00 Giza-proba eta ondoren idi-dema Dema plazan.

Uztailak 24, ostirala

■ 20:00 Kontzertua Aginagako Eliza Zaharreko kanpoaldean: Odolaren Mintzoa.

Uztailak 31, ostirala

■ 22:00 Kontzertua Aginagako Eliza Zaharreko kanpoaldean: Dalton Anaiak.

Oharrak:

Sarrerak aurrez eskuragarri usurbilkultura.eus webgunean.

Informazio gehiagorako:

943 371 999

usurbilkultura.eus

Kultur Birako lehen hitzorduetarako sarrerak ekainaren 27a baino eskuratu behar dira

Uztailak 1 osteguna

Artixten Gaua Txokoaldeko Plazan

- Ordua: 20:00.
- Edukiera: 40.
- Apuntatzeko azken eguna: Ekainak 27.
- Oharra: Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

Artixten Gaua Atxegalden

- Ordua: 20:00.
- Edukiera: 70.
- Apuntatzeko azken eguna: Ekainak 27.
- Oharra: Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

Artixten Gaua Skate Parkean

- Ordua: 20:00.
- Edukiera: 70.
- Apuntatzeko azken eguna: Ekainak 27.
- Oharra: Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

Uztailak 2 ostirala

Tor Magoa Oiardo kiroldegian

- HH4/DBH4ko gazteentzat.
- Ordua: 16:00.
- Edukiera: 220.
- Apuntatzeko azken eguna: Ekainak 27.
- Oharra: Heldu/arduradun Bakoitzak, bereaz gain, beste 3 sarrera eskatu ahaliko ditu.

Kontzertua: Mihise, Ezpalak

- Ordua: 22:00.
- Edukiera: 220.



Uztailaren 2an, Tor magoa Kiroldegian izango da arratsaldeko 16:00etan. HH4-DBH4 arteko gazteentzako emanaldia eskainiko du.

- Apuntatzeko azken eguna: Ekainak 27.
- Oharra: Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.
- Edukiera: 220.
- Apuntatzeko azken eguna: Ekainak 27.
- Oharra: Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

Uztailak 3 larunbata

Kolore Festa kiroldegian

- Marrazketa saioa, HH3tik DBH4ra bitarte, kiroldegian. Norberak bere margoak ekarri beharko ditu, baita karpeta-aren bat ere, euskarri bezala erabiltzeko. Bukaeran, opariak zozketatuko dira parte hartzaile guztien artean. Bi gai aukeran: -Zer da zuretzat koronabirusa? -Nola pasatuko dituzu opor-rrak?
- Ordua: 12:00.
 - Edukiera: 220.
 - Apuntatzeko azken eguna: Ekainak 27.
 - Oharra: Heldu/arduradun Bakoitzak, bereaz gain, beste 3 sarrera eskatu ahaliko ditu.

Joseba Tapia kiroldegian

- Ordua: 22:00.

Ameba eta Liher Santuenean

- Ordua: 22:00.
- Edukiera: 265.
- Apuntatzeko azken eguna: Ekainak 27.
- Oharra: Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

Uztailak 4 larunbata

Familia Plana: 'Zuku Magikoaren Bila' Artzabalgo frontoiti- abiatuta

- Andatzaren bila dabil Mari, zuku magiko bat osatu nahian, eta zuen laguntza behar du! Mapa bat eskuan, herriko hainbat txokotan ezkutatuta dauden pertsonaiak eta arrastoak topatu eta deskubritu beharko dituzue. Adinez nagusiko arduradun batekin, umeez zein gaztetxoek

taldeka burutzeko abenturazko rol jokoa duzue honakoa, herriko hainbat aisialdi taldek elkarlanean osatua.

*Gomendatutako adina: 6tik 12 urtera.

*Heldu/arduradun bakoitzak, gehienez, beste bederatzi sarrera eskuratzeko aukera izango du.

*Antolatzaileek taldearen parte hartzea baieztatzean, arduradunarekin harremanetan jarriko dira, taldeak abiatze puntuan zein ordutan egon beharko duen zehazteko.

- Ordua: 10:00.
- Edukiera: 200.
- Apuntatzeko azken eguna: Ekainak 27.

Bertso saioa

Oiardo kiroldegian

- Ordua: 20:00.
- Edukiera: 220.
- Parte Hartzaileak: Ane Labaka, Amets Arzallus, Miren Amuriza eta Unai Gaztelumendi. Gai jartzailea: Amaia Agirre.
- Oharra: Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.
- Apuntatzeko azken eguna: Ekainak 27.

Kontzertua: Natali eta Izaki Gardenak Santuenean

- Ordua: 22:00.
- Edukiera: 265.
- Apuntatzeko azken eguna: Ekainak 27.
- Oharra: Herritar bakoitzak bi sarrera eskuratu ahal izango ditu, gehienez.

JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

Otar-Goxo
Elkargak

Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK TOSTAK
MENU BEREZIAK

ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

943 36 91 39

www.artzabaljatetxea.eus

OSASUN GIDA 2020



Irati Ibargoiien
FISIOTERAPIA-OSASUNA

PSIKOLOGIA

- Terapia individualak
- Mindfulness

PILATES TERAPEUTIKOA

- Individuala
- Taldeakoa

BESTE TERAPIA MOTAK

- Presoterapia

FISIOTERAPIA

- Amatasun prestakuntza
- Zoru Pelbikoko tratamenduak
- Terapia Manual Ortopedikoa (TMO)
- Fisioterapia eta osteopatia Funtzionala
- Puntzio lehorra
- FIM (fibrolisis instrumental miofascial)



943 53 92 66 Puntapax 6B, behea ez. USURBIL



USURBIL
OPTIKA

Bigarren lente pareak doan:
lente progresiboetan,
irakurtzeko lenteetan
eta ikus-urruneko lenteetan

2. lente pareak doan

2x1

PROGRESIBOETAN
IRAKURTZEKOETAN
IKUS-URRUNEKOETAN

Zubiaurrenea, 10

943 370 269 • 675 708 654



Iturralde botika

Tomas Iturralde botika

33/17 PEZ

- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikoa
- Maisu formulak

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO

RPS. 28/17



Nagusia 10, 1.C4 943 37 08 78 USURBIL



Osakidetzarekin
hitzarmena

zenta

**ORTOPEDIA BAT
BAINO GEHIAGO**

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen
salmenta eta alokairua.
- Etkez-etxeko zerbitzu
tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es



Errekalde 59, Donostia 943 105 205

Kima
MASAJE LEKUA

• Kirol eta terapeutiko masajeak

Txirrindulariaren azterketa
biomekanikoa

943 366 197 Kale Nagusia, 44- behea • LASARTE-ORIA

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

www.oinutsik.com - 943 11 09 54

etorri zaitez zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna onetatik

Herri babeserako sarea ez dute desegingo

Bat-batean eta erasokorra zen birus batek hankaz gora jarri du guztion bizimodua eta babestu beharrean aurkitu gara. Egun batek beste konfinatzeko agindua heldu zen Madriletik; bakoitza bere bizilekuan isolatu zen. Oinarritzko beharrak asetzeko (erosketak adibidez) zailtasunak areagotu ziren, bereziki babes gabeago geratu ziren kolektibo zaurgarrienetan.

Zetorrena ikusita, antolatu beharra ikusi zuten Aritz Aranburu Gorratxategik eta Odei Girado Irasuegi herritarrek; babes sarea martxan jartzeko lanei ekin zieten. Abiada bizian bideratu zituzten presaketak lanak, bat-batean heltzear zen konfinamendurako. Babes sarea artikulatzen hasi ziren. Besteak beste, protokolo bat idatzi zuten, segurtasun eta osasun berme guztiekin funtzionatu ahal izateko. Konfinamendua abiatu bezperan, martxoaren 14 hartan eguerdian Udalean osatu zen merkataria, udal ordezkari eta herritarrek osaturiko Prebentzio Mahaiaren bueltan hasi ziren egituratzen aipatu sarea, aurrez izandako bileren ostean. Prebentzio Mahaiaren bilera hartatik “ateratzerako sistema prest zegoen eta astelehenerako martxan zen”, Aritzek azaldu digunez. Argi zuten;



“Zorionez ez da kutsatze alturik egon, baina askoz egoera larriagoa izan genezakeen”, azaldu digute babes sarean aritu diren lagunek.

ARITZ ARANBURU

“25 izan dira asteotan babes sarera laguntza eske jo duten herritarrek”

laguntza ekimen honen jarraikortasuna bermatuko zuten.

150 bolondres izatera heldu dira

Herritarren babes sarea lanean hain azkar jartzean zer ikusia izan zuten baita segituan izen ematen hasi ziren bolondresek ere. 150 bolondres izatera ere heldu dira. “Bolondres kopuru altua izatea nahi genuen, ez genekien eta zer eskari egongo zen”, Aranbururen esanetan. Bereziki helduengan pentsatu zuten babes sare hau sortzerakoan, “baina familia oso

bat kutsatu eta berrogeialdian egon behar badu? Horiei ere zerbitzua eman beharko zitzaien”, gogorarazi digu. Gaur arte, 16 kasu diagnostikatu dira Usurbilen. “Zorionez ez da kutsatze alturik egon, baina askoz egoera larriagoa izan genezakeen”.

Bolondres sarearekin WhatsAppen osatu zuten talde koordinatzaileak, bidean sortu zitzaizkien zailtasun ezberdinei aurre egiten joan dira. 25 izan dira asteotan babes sarera laguntza eske jo duten herritarrek; tartean, helduak gehienbat, edota gurasoen zaintza lanak eta bizimodua ezin uzartu zebiltzan seme-alabak. Izan da, sare honen laguntza eskatu hasieran, eta gerora senideak zeregin honetara batu, sare honen beharra izateari utzi dionik.

“Lagundu ahal izateak baliagarri sentiarazi ditu”

Hartuemanen sarea izan da asteotan jardunean egon dena. Aldi berean eman eta jasotzea ahalbidetu duena. “Esker mezu asko jaso ditugu; ez bakarrik laguntza jaso dutenena, sarean sartzeko aukera izan dutenena. Lagundu ahal izateak baliagarri sentiarazi ditu hainbat herritar, sareak eman ahal zutena ematea ahalbidetu die”.

Erosketek haratago 65 urtetik gorako helduei ere hainbat telefono dei egin zaizkie; zeregin horretan bolondres gisa parte hartu du Odeik. “Nik eman baina jaso egin dut eta horrek hunkitu nau. Deitu nion pertsona bat maskara batzuk josten aritu da eta maskara horiek jaso ditut. Gu ere etxean egon gara eta hitz egitea ondo etorri zaigu”.

Indibidualismoa hautsi duen ariketa kolektiboa izan da honakoa. “Ariketa hau egin jartzeak jabetzen laguntzen digu zer garrantzitsua den komunitatea, bakarrik ez zaudela sentitzea, hurbilekoez haratago ezagutzen ez zaituena zu babestu eta laguntzeko dagoela ikustea eta komunitate horren parte aktibo sentitzeak zer balio duen; eman eta jaso egiten duzu aldi berean. Gertaera hauen guztien aurretik berdina pentsatu ahal zenezakeen baina orain hitz horiek egia bihurtu dira”, Aritzen esanetan.

Sare honekin politika hizki larriz egin dela irizten dio Odeik. “Utopia txiki bat bizi izan dugu. Hainbat oztoporen gainera jende ezberdina eta anitza elkartuta”. Herri honek “autoantolakuntzarako” erakutsitako gaitasunean sakontzen segi behar dugula diote.

Etorkizunerako ere prest

Barne antolaketa lana nabarmentzeko modukoa da. “Herriak erantzun bat eman eta babes sare handi bat sortzeko gaitasuna erakutsi du”, adierazi digute sustatzaileek.

Halabeharrez bizitzea egokitu zaigun konfinamenduak utzi digun etorkizuneko herri-ondarea zalantzarik gabe.

“Etorkizunean bestelako behar batzuk sor daitezke. Dena artikulatua dago, nola egin ikusi eta ikasi dugu”, gogorarazi digute. Horregatik, egoera itxuraz zertxobait “lasaitu” dela dirudien honetan, “orain da aurrera begira sare honek zer funtzio, lan hartuko dituen pentsatzen hasteko garaia”.

Ez dute babes sarea desegiteko asmorik. “Etapak bat itxi da, beste fase batean sartzen ari gara”, baina ohartarazi dutenez, eraiki den “oinarria krisialdi hau aurrean dugun artean erantzuteko prest egongo da berri”. Konfiantza sortu du, hartuemanak, eskuhartzea errazteko baliabideak jarri dira...

“Sareak herriaren batasuna sendotzeko balio izan du”

Urgentziaz eginiko deialdiak harrera bikaina izan zuen. 150 bat herritarren babes sareak osatu zuen Usurbilek konfinamendu hasieran. Denak eskuzabaltasunik handienarekin beharrean zirenak laguntzeko prest; tartean, Aitzpea Seguro-
la eta Amaia Añorga.

“Ondo nengoela ikusi nuen. Beste pertsona batzuk laguntza beharko zutelakoan eman nuen izena”, azaldu digu Aitzpeak. Sare sozialen bidez jaso zuen laguntzarako deia, baita Amaiak ere. “Denbora libre pixka bat nuen eta parte hartzea erabaki nuen, beharra zuen jendea laguntzeko”.

Izena ematerakoan, zertan eta zer ordutegitan laguntzeko prest zeuden galdetegi bidez adierazi zuten. Biek erosketak egitea hautatu zuten. Herritarren babes sareko antolatzaileek egin zuten zubi-lana bolondreson eta laguntza beharra adierazi zuten herritarren artean.

“Ez genekien birusa zenbateraino hedatua zegoen”
Ekimen honek besteak beste herritarrek izan zitzaizkien beharrak azaleratu ditu. “85 urte zituen, seme-alabak kanpoan bizi zituen eta ez zuen eros-



“Denbora libre pixka bat nuen eta parte hartzea erabaki nuen, beharra zuen jendea laguntzeko”, azaldu digu Amaia Añorgak.

AITZPEA SEGUROLA

Aurrez ezagutzen ez zuen herritar batekin hartueman izatea ahalbidetu dio babes sareak: “Harreman oso polita izan da. Oso emakume jatorra da”

ketak etxera eramateko inor”, azaldu digu Amaiak. “Astean hiruzpalau aldiz deitzen zidan. Berarengana joateko ordua zehazten genuen”, kontatu digu Amaiak.

Elkar zaindu eta babesteko babes sarearen protokoloa zorrotz jarraitu dute, hainbat baliabide eskaini dizkie. “Erosketekin iristean telefonoz deitzen

nion. Atea irekitzen zidan eta erosketak uzten nizkion”, kontatu digu Aitzpeak.

Ez zen erraza izan bereziki hasieran. “Urduritasun puntu batekin zoaz. Ez genekien birusa zenbateraino zegoen hedatua hemen. Berari ere ikusten zitzaion beldur puntu hori bazuela. Atea erdi irekita izaten zuen, beti distantziak mantentzen, ni ere beti maskara eta guanteekin. Berari beti eman behar zitzaion plastiko edo poltsa bat inork ukitu ez zuena, berak bakarrik ukitu zezakeena. Dirua zakutxo batean ematen zidan eta zakutxo hori ez genuen ukitzen. Erosketak ere berak eskatu zitzaizkien guanteekin ukitzen zituen”, deskribatu digu Añorgak.

Hartuemanak sendotu ahala ordea, errazago bideratu ahal izan zuten laguntza lan hau. Herritarren arteko elkar eza-gutza ere sustatu baitu, babes sare honek. “Hasieran Amaia naiz, erosketak egitera etorri naiz esaten nion. Lurrean uzten zidan erosketa zerrenda eta dirua. Bukaera aldera konfiantza puntu hori hartzen duzu beste pertsonarekiko eta hobeto. Jada zer moduz ginen galdetzen genion elkarri”, oroitzen du Amaiak.

Konfinamenduak berak ahalbidetu ahala, seme-alabak izan ditu bisitan eta haiek egiten zitzaizkien erosketak. Hala ere “esan nion behar zuenerako hor zuela telefono zenbakia eta deitzeko lasai. Beste pertsona bat ezagutu dut Usurbilen”. Oinarrizko beharrak asetzetik abiatuta, “elkartasuna sortu du, herritar gehiago elkar ezagutu gara”, Amaiak nabarmendu digunez.

Aitzpeak ere aurrez ezagutzen ez zuen herritar batekin hartueman izatea ahalbidetu dio babes sareak; “harreman oso polita eta ona. Oso emakume jatorra da”. Ez zekien eskerrak nola eman. Azkeneko egunean bonboi kaxa handi bat oparitu zigun. Oso esperientzia atsegingarria izan da”, ziurtatu digu.

“Beti lehen mailan ez dauden baloreak azaleratu dira”

Halakoetan sarritan gertatu ohi den moduan, norbera hasten da eskuzabaltasun osoz laguntzen, ematen; ez da gutxiago, gerora jasotakoa. “Atsegingarria izan da ezerekin truke beste pertsona bat lagundu ahal izatea. Laguntza eman eta besteak eskerrik asko esatearekin jada

oso pozik sentitzen zara. Besteengandik asko ikasten duzu eta pertsona bezala hazten zoaz. Eskerrik asko sare hau sortu dutenei, oso onuragarria izan da”, Aitzpearen esanetan.

Herritarrek elkar zaintzen jartzen dituen halako babes sareak beharrezkotzat jotzen

dituzte Amaiak eta Aitzpeak.

“Oso indibidualki bizitzen ari ginen”

“Elkarri lagundu behar diogula uste dut, hori galduta dagoela. Oso indibidualki bizitzen ari ginen denak eta egoera honetan pixka bat berresku-

ratzen ari garela uste dut”, Seguro-laren iritziz.

Amaiak ere iritzi bera du; esperientzia honetatik badugu zer ikasia. “Beti lehen mailan ez dauden balore horiek (elkar laguntza, zaintza...) azaleratu dira. Sareak herriaren batasuna sendotzeko balio izan du”.

Txaramuntoko etxebizitza sozialak, maizterren zain

Otsaileko osoko bilkuran alokairu sozialeko etxebizitzak esleitzeko araudia onartu zuten hasieraz eta aho batez: ohiko baldintzetan, dagoeneko jendaurreko epea bukatuta eta sistema berria martxan legoke. Covid19 birusaren krisiak, ordea, epe administratiboak eten egin zituen, eta orain hasi dira berriz ere martxan jartzen: astelehenean bertan argitaratu zuten GAOn Usurbilgo Etxebizitza Eskatzaileen Udal Erregistroaren araua, eta, beraz, jada eman daiteke izena etxebizitza eskatzaile gisa, udal-erregistroa beharrezko dokumentazioa eramanda.

Erregistro horrekin, alokairu sozialeko etxebizitzak baremazio bidez esleitu dira, eta ez zozketaz, orain arte bezala. Baremazio horrek bermatuko du etxebizitzak behar gehien



Alokairu sozialeko etxebizitzak baremazio bidez esleitu dira eta ez zozketaz, orain arte bezala. Uztailaren 30a baino lehen eman behar da izena.

USURBILGO UDALA

“Erregistroa abiatuta, Txaramunto 2 kaleko zazpi etxebizitza izango dira esleitzen lehenak”

dutenei esleitu zaizkiela: kontuan hartuko ditu familien osaera, egoera ekonomikoa, osasuna, babes bereziren bateko kolektiboko kide izatea, herrian errotzea eta lehendik

udal etxebizitzetan esleipenduna izan den edo ez. Aurrerago, erregistroan jasotako datuen bat aldatuko balitz, horren berri eman beharko diote eskatzaileek udalari.

Alokairu sozialera bideratutako etxebizitza bat libre gelditzen den aldiro esleitu dira etxebizitzak, eskatzaile guztien datu eguneratuak oinarri hartuta: etxebizitza eskatzaileen zerrendan lehena dagoen eskatzaileari esleitu

zaio. Errenta kontratuak urtebetekoak izango dira, eta urtez urte luzatu ahal izango dira, bost urtera arte: kontratuaren epemuga iristen denean, maizterrek udalaren esku utzi beharko dute etxebizitza. Hilero kobratuko zaien errenta familia unitatearen diru-sarreraren arabera izango da.

Bi logela dituzte etxebizitzek

Udalak, gaur-gaurkoz, hementzi etxebizitza ditu, jabetzan, alokairu sozialera bideratuta. Txaramunto 2 kalean, guztira, hamabi, eta, Gernika Ibilbidean, zazpi. Etxebizitza Eskatzaileen Udal Erregistroa abiatuta, lehenengo esleipena Txaramunto 2 kaleko zazpi etxebizitzarena izango da. Lehen esleipen horretan izena emateko uztailaren 30era arteko epea izango da. Etxebizitza guztiek bi logela dituzte, eta 40m² eta 59m² artekoak dira.

**merezi
duzun
herria**

ehbildu



maddalen

ZURE LEHENDAKARIA



Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Pippilotta Viktualia Rullgardina Krusmynta Efraimdotter Långstrump

75 urte bete ditu Pippi Kaltzaluzek, eta ez da zahartu, alajaina. Beti bezala jarraitzen du, irribarrez, bihurri, jolasti eta gazte. 1945ean argitaratu zen Astrid Lindgren idazle suediarak idatzitako Pippi Langstrump-en lehen liburua. Euskaraz 1994an argitaratu zen Elkar argitaletxearen eskutik, eta euskaraz hizketan 2003. urtean ikusi genuen ETBn. Eta Pippiren abestia... buruan iltzatuta daukagu oraindik batek baino gehiagok.



75 urte bete ditu Pippi Kaltzaluzek eta oraindik gaur egungo umeek zein helduek ikusteko modukoa da.

Pippiren sorreran istorio bitxi bat dago, bere istorioak ere bitxiak eta apurtzaileak dira, eta are bitxiagoa da oraindik galdu ez duen gaurkotasuna. Astrid Lindgrenek 7 urteko alaba pneumoniak jota omen zuen etxean eta hari istorioak kontatzen omen zizkion denbora pasatzeko. Egun batean, Pippiren istorioak asmatzen eta kontatzen hasi zitzaion alabari. Urte batzuk beranduago, istorio horiek bildu eta liburua alabari oparitu zion urtebetetze egunean.

Alabari bakarrik ez, gainerako umei ere istorio horiek irakurtzeko aukera eman nahi zenez, argitaletxe batera jo zuen Lindgrenen, baina oztopoak izan zituen. Azkenean, Raben&Sjogren argitaletxearen lehiaketa batera aurkeztu zen, eta baita irabazi ere. 1945ean argitaratu zen

AINHOA AZPIROTZ
“Ikuspegi feministatik erabat urratzailea da. Ezaugarri horiekin, nola ez da, bada, eredu izango gaur egun ere?”

lehendabiziko liburua Suedian eta Hego Euskal Herrian zentsuratuta egon zen 1970eko hamarkada arte.

Zer zuen, bada, neska ilegorri hark zailtasun horiek izateko edota zentsuratua egoteko? Ikuspegi askotatik zela apurtzailea eta ezohikoa. Orain dela 75 urteko gizartean —eta gaur egungoan ere— batere ohikoak eta onartuak ez diren jarrerak azaltzen ditu Pippik. Irakurri edo ikusi besterik ez dago Tommy eta Anikak jartzten dituzten aurpegi arraroak Pippik egiten eta esaten dituen

gauzen aurrean. Tommy eta Anikaren etxera joandakoan ez da isilik geratzen, pentsatzen duena esaten du bai umeen eta baita helduen aurrean ere, ez du lotsarik eta bere asmoa ez da neska txintxoia izatea. Ez dio batere erreparorik ematen lagunuen etxeko mahai gainean dauden tarta puskak eskuekin hartu eta bata bestearen atzetik jateak lagunuen ama eta beste emakume batzuk aztoratzen diren bitartean eta edukazio txarreko neska dela dioten bitartean; gose da, mahai gainean jateko daude eta inork ez du esan bakarria jan behar denik, beraz... Ausarta eta libre da eta denak ahozabalik uzten ditu bere bat-batekotasunak eta naturaltasunak.

Lagunak bere etxera gonbidatzen dituenean etxean nahi dutena egin dezaketela esaten die, eta harrituta begiratzen

diote. Abentura bila dabil beti, alai eta zoriontsu. Eta umorerik galdu gabe, hori ere bada Pippiren ezaugarri bat: sortzen zaizkion egoerak eta abenturak umorez hartzen ditu beti, alderdirik positiboen ateraz eta ondo pasaz.

Gurasorik gabe bizi da eta hori ere erabat apurtzailea da. Familia eredu desberdinak egon zitezkeela esaten aspaldi hasi zen Lindgren egilea. Osaba Txiki zaldia eta Nilsson jauna tximua bizi dira berekin eta haiekin osatzen du familia, gehi tarteka agertzen den aita piratarekin.

Ikuspegi feministatik erabat urratzailea da: ez dio garrantzirik ematen polita eta liraina izateari, eroso janztea eta ibiltzea da axola zaiona; orduko eta egungo gizarteak bultzatzen dituen neska ereduaren kontrako diskurtsoa du. Are gehiago, diskurtsoaz gain, praktika ere bai: esan eta egin. Ez da gainerako emakume asko bezala bazterrean lotsatuta geratzen, plazaren erdian lasai eta eroso moldatzen da, ahaldunduta.

Ingurukoek ez dute begi onez ikusten Pippiren autonomia eta ausardia, baina berari bost axola, desobedientea izan behar bada eta horretarako arrazoiak baldin baditu, aurrera egiten du. Ezaugarri horiekin, nola ez da, bada, eredu izango gaur egun ere?

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Idoia Torregarai Martija

Zuen publizitatea hemen
 ☎ 943 360 321
 publizitatea@noaua.eus

ENORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA
 • komertzial instalazioak • beira bikoitza
 • segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
 • ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

EROSKI/city
 kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Aldamu: “Hemen beti dago zeregina”

Konfinamendua arintzen hasi zenean, den-dari asko lanera itzuli ahal izan ziren. Horien artean dira Aldamu, Lurda, Errazkin eta Urtinea lore-denda. Euren-ganu jo dugu iritzi eske.

NOAUA! Bi hilabete luze egin zenituzten etxean, denda zabaldu ezinik.

Aldamu konponketak. Martxoaren erdialdean itxi genuen. Denak bateratsu ibili ginen. Maiatzaren hasieran itzuli ginen, baina lehen egunetan aurretiko hitzordua eskatu behar zen.

Betiko ordutegiarekin itzuli al zineten?

Bai, hemen beti dago zeregina.

Lehen aste horietan beldurra zen nagusi. Zuek ere igarri al zenuten?



Aldamukoen ustez, bonuen tankerako laguntzak “beti dira eskertzekoak”.

ALDAMU

“Lehenengo martxa berreskuratu dugu baina kosta egin da. Hasieran mugimendu gutxi zegoen”

Bai, kosta egin da. Nobedadea zelako, ezjakintasuna nagusi zelako... Nola jokatu ez genekien.

Gauzak “normaltzen” hasi dira

azken asteotan, ezta?

Bai, baina horretarako ere denbora behar da. Poliki joan da. Hasieran esaten genuen, hau zer da? Beldurtuta ere izan ginen. Baina aste honetan askoz hobeto ibili gara.

Denda zabaltzearekin batera, herriko saltokietan kontsumitzaile bonuak ateratu dituzte. Lagungarria izango zen.

Bai, baina hemen polikiago doa. Gure bonuak 20 eurokoak dira eta, pentsatzen hasita, 20 euroko gastua segituan egiten da. Beste bezero batzuei berriez, ez zaie bonuena inporta.

Horrelako zerbait bultzatzea beharrezkoa zela uste duzue?

Laguntza horiek beti dira eskertzekoak. Mugimendua eragiten du.

Orain ere, gauzak konpondu edo giltzen kopiak egiteko beharra izango du jendeak.

Hori da. Gure lana kate bat da. Jendeak gauza berriak erosten dituenen, hona etortzen dira hau edo beste hura jartzera, praka-barrena hartzera...

Kontsumoa handitzeak mugimendua dakar.

Hori da, esan dizudan bezala, dena kate bat da.

Lurda: “Askok gustatu zait bonuena nola planteatu duten. Jendea ari da aukera aprobetxatzen”

NOAUA! Bi hilabetez itxita egon eta gero, lanerako buelta nolakoa izan zen?

Lurda mertzeria: Ez zen erraza izan. Protokoloari dagokionez adibidez, ez genuen oso argi zer nolako neurriak bete behar genituen. Guk arropa desinfektatu egin behar dugu eta ez genekien zer behar genuen horretarako. Pixkanaka joan ginen egokitzen.

Goizez bakarrik zabaltzen duzue, ezta?

Bai, baina aurrerago berreskuratu dugu ohiko ordutegia.

Enkarguak telefonoz hartzeko aukera ere eskaintzen duzue.

Jende batek ezin du goizez pasa eta telefono bidezko zerbitzua jarri dugu aukeran. Aurretik deituz gero, arratsaldean



Berririo zabaltzearen ondoren, ilarak sortu ziren Lurda mertzeriaren kanpoaldean.

LURDA

“Jende batek, herritik kanpo erosiko lukeen hori herrian erosten ari dela iruditzen zait”

bertaratu naiteke momentu batean dendara.

Dagoeneko bere onera itzultzen ari da merkataritza sektorea. Lehen asteak ez ziren errazak izango, ezta?

Jende asko zegoen zain, baina iruditzen zait askok beharra zutela zerbait diferentea egiteko. “Bi hilabetez etxean egon gara eta behar dugu aterata”. Hasierako egunetan ilara handiak

izan genituen. Baina egoera hori ez zen erreala.

Bonuen kanpainak zer nolako harrera izan du hemen?

Askok gustatu zait nola planteatu duten eta jendea ari da aukera aprobetxatzen. Jende batek, herritik kanpo erosiko lukeen hori herrian erosten ari dela iruditzen zait. Oso ondo ari da funtzionatzen.

Bezeroarentzat abantaila da. Baina dendariontzat ere garrantzitsua izango zen, ezta?

Oso lagungarria da. Ni oraindik ez nintzen oso ondo azalartzen eta egun batetik bestera jakinarazpen pila bat iritsi zitzaizkidan posta elektronikoz. Poz handia hartu nuen. Benetan! Animo aldetik kristoren laguntza izan zen.

Errazkin Bizikletak: “Lanez lepo nabil”

NOAUA! Birusaren beldur, herriar batzuei kosta egin zaie ohiko martxara itzultzea. Hemen ere hala izan al da?

Errazkin Bizikletak: Alderantziz. Nik zorionez lan pila bat daukat. Hitzorduak hemendik hamabost egunera ematen ari naiz. Eromena. Bizikleta dena guztiak topera gailtza.

Orain gainera, Udalak sustatu duen laguntza-bonuarekin erosteko aukera dute zure bezeroek, ezta?

Bai, baina hona etortzeko ohitura duenak ez du begiratzen hori. Deskontu hori aprobetxatzen duten asko dira hemen behin ere erosten ez dutenak. Bonuena ondo dago salmenta bultzatzeko, baina uste dut aldrebes egin beharko litzatekeela. Hemen gastatzen duenari, hari eman bonua. Usurbilgo betiko bezeroari.



Bizikleta dendetan garai lanpetua da hau. “Hitzorduak hemendik hamabost egunera ematen ari naiz”, azaldu digute Errazkin dendan.

BONUEN ESKAINTZAZ

“Uste dut logikoagoa dela beti etortzen diren horiei laguntzea”

Baina usurbildarrek bakarrik eskura ditzakete bonuak.

Bai, baina uste dut logikoagoa

dela beti etortzen diren horiei laguntzea. Kontu hauekin beti gauza bera gertatzen da, aprobetxatzen du behar ez duenak. Nolabait esatearren.

Horrelakoetan, herrian kontsumitzeko ohiturarik ez duena agertzen dela esan nahi duzu.

Kontsumitzen du orain, %20 ko deskontua duelako. Bonu hauek horrela funtzionatu beharko lukete: “zu Usurbilgo dendetako bezeroa zara, beti Usurbilen gastatzen duzu, tori bonua”. Uste dut guk eman beharko genukeela bonuen kontua. Merezi duenari.

Alegia, dendariak erabaki beharko luke bonua nori eman.

Hori da. Herrian gastatzen duenari. Atetik sartzen direnean nik badakit betiko bezeroak diren edo ez. Dena den, hau kanpaina global bat da eta ni nire ikuspegitik ari naiz hizketan. Nik nire dendan ikusten dudana.

Zure iritziz, bonuen formula hobetu daiteke.

Nire dendan bai. Nire esku baleude, ondo aprobetxatuko lituzke betiko bezeroak.

Urtinea: “Lan gehien izaten dugun urtaroan harrapatu gintuen konfinamenduak”

NOAUA! Berriro martxan zaudete. Zenbat denbora egin zenuten lanera etorri gabe?

Ana Zaro, Urtinea: Martxoaren 14an itxi genuen eta Amaren Egurenaren bueltan hasi ginen berriro lanean. Aforo mugatuarekin eta aurretiko hitzorduarekin.

Normaltasunera itzuli zaretela esan al daiteke?

Orain hobeto gailtza, bai. Martxoan eta apirilean itxita izan genuen Urtinea, eta bolar horretan galdutakoa ez dugu erreuperatuko. Baina maiatzetik ekainera, gorakada bat izan dugu salmentan. Pozik gaude.

Abiatzerakoan, garrantzitsua izango da lanpetuta hastea.

Hori da. Ez gara gutxinaka



San Estebanen dago Urtinea lore-denda.

ANA ZARO, URTINEA

“Jende asko etorri da bonuarekin. Hemen oso ondo ari da funtzionatzen”

hasi. Zabaldur genuenetik ondo aritu gara lanean, erritmo normal batean.

Konfinamenduak bete-betean eragin zuen sektorean, ezta? Landare gehien saltzen den garaian.

Onenean iritsi zen konfinamendua. Lan gehien izaten dugun urtaroan harrapatu gintuen. Martxo eta apirila izan ohi da loreak jartzeko garaia. Askok saltzen dugu bi hilabete ho-

rietan eta ezin ireki. Jende bat etorri da maiatzean; baina beste batzuk akaso ez dute lorerik jarriko aurten.

Udalak martxan jarri berri duen bonu salmenta lagungarria izan al da zuentzat?

Gu ere parte hartzen ari gara eta oso ondo ari da funtzionatzen. Jende asko etorri da bonuarekin. Badira erosi dutenak baina oraindik lore bila pasa ez direnak. Denbora dute horretarako oraindik.

Hortaz, bultzada hori eskertzeak izango da.

Ekimen ona izan da. Gu ez gaude kaxkoan, San Estebanen gaude eta hona autoz etorri behar da. Bonuak asko lagundu digu, horri esker batzuk hona igotzeko ahalegina egin dutelako.

Botilak jaurti dituzte Zubietako etxe baten kontra

Aldameneko argazkia- rekin batera, salaketa ohar bat jaso dugu NOAUA!ko erredakzioan.

“Lehengo asteko ostegun goizaldean, Zubietako etxe baten kontrako erasoak burutu zuten. Ezezagun batzuk kristalezko botilak jaurti zituzten etxeko atearen kontra. Egurrezko atean kalteak sortu zituzten eta hautsitako botilak ate aurrean sakabanatuta geratu ziren. Ez da lehen aldia izan bertako bizilagunak tankera horretako erasoak jasan dituztela”.



Egurrezko atean kalteak eragin zituzten eta “hautsitako botilak ate aurrean sakabanatuta geratu ziren”.

Zubietako etxe honetan jasan duten eraso berriaren aurrean, “Donostiako Udaltzaingoa sa-

laketa jarri dute, eta ikerketa abian dago, aurreko erasoekin lotura izan dezakeelakoan”.

Euskara eta aisialdiko udal diru-laguntzak

Ekainaren 29tik uztailaren 10era bideratu ahal dira eskabideak, bi egunok barne. Usurbilen erroldatua egotea ezinbestekoa izango da.

Euskarako laguntzak

■ Zenbatekoa: matrikula kostuaren %100a, 600 euroko mugarekin, %80ko asistentzia eta gutxieneko aprobetxamendua egiaztatzen bada.

Behar ekonomiko bereziak dituzten euskara ikasleentzat

■ Zenbatekoa: matrikula kostuaren %100a, 600 euroko mugarekin, %80ko asistentzia eta gutxieneko aprobetxamendua egiaztatzen bada.

■ Behar ekonomiko berezia duten herritarrei euskaltegiako matrikula kostua aurreratuko zaie.

■ 2020ko uztailetik 2021eko ekainaren 30era eginiko ikastaroak lagunduko dira diruz.

■ Dirulaguntza eskaera euskaltegiako matrikulazioa bideratzeko aurkeztu beharko da.

Aisialdi begirale edo zuzendari ikastaroak egin dituztenentzat

■ Begirale ikastaroa: matrikularen %50a (gehienez ere 250 euro).

■ Aisialdiko zuzendari ikastaroa: matrikularen %50a (gehienez ere 170 euro).

Baldintzak

■ Ikastaroa euskaraz eta Eusko Jaurlaritzak homologatua izatea.

■ Ikastaroaren alderdi teorikoa gainditu eta araututako gehieneko epearen barruan titulua lortzea.

Kanpaldi ibiltaria iragarri du Ziortzak

Pandemiaren erruz, Ziortzak bertan behera utzi behar izan zuen Peñaloscintoseko kanpaldia. Azken hilabeteotan alternatiba bat bilatu nahian aritu dira. “Lanketa luze bat egin ondoren, proposamen honekin gatzoz: Kanpaldi Ibiltaria!”, iragarri dute Ziortzako kideek.

“Begiratu posta-elektronikoa”

2020ko kanpaldiko aurre izen-ematea bete zutenek parte hartu ahal izango dute bertan. “Beraz, aurre izen-ematea bete zenutenok, begiratu zuen posta elektronikoa!”.



Aldaketak udal zerbitzuetan

Udal-erregistroan

■ Ez da zitarik hartu behar-ko aldeiz aurretik.

■ Lurrean jarritako seinaleei erreparatu beharko zaie ilara egiteko.

■ Maskara derrigorrezkoa izango da.

Potxoenean

■ Atea zabalik egongo da.

■ Gelen edukiera %60ra igoko da: 20 lagun Urdintxon, 10 proiektore gelan, 6 gela txikian eta 18 sotoan.

■ Bildutakoen artean 1,5 metroko distantzia utzi ezin den kasuetan, derrigorrezkoa izango da maskara janztea.

Kiroldegiko gimnasioan

■ Zita hartu beharko da aurrerantzean ere, edukierak 35 lagunekoa izaten jarraituko baitu.

■ 2 orduko txandak hartu ahal izango dira (bat behar-rean).

■ Bi makina erabiltzeko aukera izango dira (erabili ostean, desinfektatuz).

■ Giharketa gela erabili nahi dutenek bereziki eskatu beharko dute zita eskatzerakoan, edukierak hiru lagunekoa izaten jarraituko baitu.

Besteak:

Liburutegian, Kiroldegiko igerilekuan eta Gizarte Zerbitzuetan berdin jarraituko dute, oraingoz. Hilaren amaierarekin batera, udako ordutegian hasiko dira lanean, eta horrekin batera jakinaraziko dituzte aldaketak (hala baleude).



1936ko gerrak Usurbilen utzitako arrastoa azaleratuko dute

1 936ko gerrak Usurbil eta usurbildarrak nola kolpatu zituen, zer nolako arrastoa utzi zuen aztertu, arlo honetan dauden hutsuneak osatu eta orduko memoria eraikitzeko abiatzera doazen hiru urterako proiektua aurkeztu dute egunotan sustatzaileek; Usurbilgo Udalak eta egitasmoa udaletxera helarazi zuten Ionma herritarrak, Aitzol Arroyo historialariak eta Aitor Azurki kazetariak.

Aurretik arlo honetan herrian egindako lanak osatzera dator, bi urte eta erdiz luzatuko den proiektua. Urtez urte luzatuko den lankidetzaren hitzarmena adostu dute Udalak eta aipatu hiru sustatzaileek. “Ez dut dudarik 36ko Gerrak gure herrian gertatutakoa eza-gutu eta zabaltzea dagokigula, ahanzturara kondenatu ez dezagun, ondorengo belaunaldiak ezagutu dezaten, inoiz inork ez ahazteko bertan gertatu zena. Hori da nire ustez berriz halakorik ez gertatzeko berme nagusia. Ondorengo belaunaldiok egin diezaiekegun omenaldi eta aitortza nagusia”, Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak, egitasmo honen Potxoeneko aurkezpenean adierazi zuenez.

“Izen abizenak falta zaizkigu”
Usurbildarren laguntzaz garai



Aurretik arlo honetan herrian egindakoa osatzera dator bi urte eta erdiz luzatuko den proiektua.

AITZOL ARROYO HISTORIALARIA

“Faxistak nondik etorri ziren kontuan izanda, Andatzaren magalean aurkituko genituzke lubaki gehienak, baten bat Bordatxo inguruan”

hartan bizitakoaren memoria osatu nahi dute. “Gipuzkoako kanpaina” erraza gauzatu zela nabarmendu izan den arren, “herritarrek erresistentzia eta duintasun handia erakutsi

zuten”, inguruotan izandako borroka leku latzetan. Ikerketa eremua zehaztua dute: Andatza. “Faxistak nondik etorri ziren kontuan izanda, Andatzaren magalean aurkituko genituzke lubaki gehienak, baten bat Bordatxo inguruan”, Aitzol Arroyo historialariaren esanetan.

Hutsune hau egin nahi dute aurre. Horretarako etxeetan jasotako historia bildu nahi dute; funtsezkotzat jotzen dute usurbildarren lekukotzak biltzea. “Izen abizenak falta dira,

beti gertatu ohi den moduan”, Aitor Azurki kazetariaren esanetan. Jakin nahi dute, “nortzuk aritu ziren lehen lerroan, nortzuk pairatu zuten erbesteak, zeintzuk izan ziren fusilatuak...”

Ikerlan honetan genero ikuspegia ere txertatu nahi dute. Gerra garaian, Azurkiren esanetan, “emakumeek pairatutako errepresioa, haur askok erbestera joan behar izan zuten, herritarrek zer nolako miseria pairatu behar izan zuten... Hori ere biltzera bagatoz”.

Proiektua lau fasetan garatuko da

■ Ikerketa lana: Euskal Herriko eta Espainiako artxibategi publiko eta pribatuak iturrien lanketa. Faxismoari aurre egin zioten usurbildarren izen-abizenak berreskuratu nahi dituzte; errepresaliatuak, erbestera joandakoak....

■ Parte-hartze prozesua: Memoriaren bulegoaren irekiera, dokumentu, argazki eta lekukotzak biltzeko. Guda-lekuak berreskuratzea: “Usurbilgo Frontea” gunea txukundu eta ezagutaraztea herritarren laguntzaz.

■ Memoriaren bulegoan bil-

dutako materialaren erakusketa.

Inaugurazioaren balizko data: 2021eko irailaren 19a, tropa faxistak Usurbilen sartu zireneko 85. urteurrenean.

■ Bildutako informazio guztiarekin liburu, dokumental edo webgune bat plazara-

tzea.

Sustatzaileak

Usurbilgo Udalari proiektu proposamena aurkeztu dion lan taldea Ionma herritarrak, Aitzol Arroyo historialariak eta Aitor Azurki kazetariak osatzen dute.

ETXEBIZITZA

Salgai

Etxebizitza salgai Kalearren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Etxebizitza salgai Santuenean: 2 gela, sukalde handia, egongela, komuna, bi balkoi, egongela. Argitsua, dena kanpoaldera. Etxeko eta komunitateko obra guztiak eginak. Trasteleku pribatua portalean. 677471648

Etxebizitza egin daitekeen 61 metro karratuko lokala salgai Munalurran. Nahi izanez gero, lizentzia, proiektua eta etxebizitza egiteko aurrekontua eskuragarri. 943 916 182 (Jon)

Etxea salgai, Zubiaurrenean. 70 m². 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Balkoia trasteleku. Dena kanpora. Fatxada eta teilatua berrituta. 688 779 465.

3 logela eta ganbarako etxebizitza salgai edo alokairuan Aginagan. Berritu berria, eguzkitsua eta lasaia. Tel. 650450869

Etxea erosi nahi dut Usurbilen. Kaxkotik gertu dagoen auzo batean. Gehienez 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel. 666 770 851

Etxebizitza eta garajea salgai. Biak batera edo aparte. 3 logela, sukalde-egongela, 2 bainugela. Etxebizitzak 78 m² eta garajeak 50m². Tel. 676 453 176.

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio berruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrek bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Alokairuan

Konfinamenduan gustura gabiltza gurasoei baina etxe bila gabiltzan bikote gazte bat gara. Biok hezitzaileak, lan kontratuarekin eta arduratsuak. 695 747 944

Usurbilen, kaxkoan eta inguruan pisu bat alokatu nahiko nuke. Txakurra daukat. Hilaren 1ean ordaintzeko konpromisoa. 661115222.

Etxe bat edo logela bat alokatu nahiko nuke Usurbil edo inguruan. Kontratu beharrezkoa. Gustura jasoko dut zure deia horretarako aukerarik baduzu. 633141060

Etxebizitza baten bila gabiltza. Baserrri bat zainduko genuke aukeran. Familia bat gara, bi seme ditugu eta euskaldunak gara. 630 335 561.

Marradun garaje bat alokairuan Bizkarre auzoan. 696 014 585

Alokairuko pisu baten bila gabiltza. Bi neska gara, biak lanarekin, arduratsuak eta garbiak. 688893668

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel. 620 708 265 / 686 143 786.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Santuenea auzoan trastero txiki baten bila nabil. 626 735 354

Nissan Terrano 2 markako kotxea salgai. 943429682 / 637293471

Kale Nagusian garaje bat salgai. Ez da garaje itxia. Prezioa negoziagarria. 667336405.

Atxegalden garaje bat erosi edo alokairuan hartuko nuke. 653014518

Garaje itxi bat alokatzen da Errekatz kalean. Tel. 616 235 366.

Alokairuan 50m²-ko lokal/garaje bat Atxegalden. Autoak sartzeko atearekin. Goiko kalea 2. 676453176

Baju bat alokatzen da Munalurra, 4ean. Tel. 652 765 583

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektriko eta itxia. 615744628.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Udan LH1eko (7 urte) ume bati klaseak emateko pertsona baten bila nabil Usurbilen. 626474232

Irailetik aurrera emakume bat behar dugu bi umei bazkaltzen eman eta eskolatik jasotzeko. Ordutegia zehazteko daukagu.

658706443

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CVinfo@quantum.eus helbidera

Usurbilgo neska edo mutil bat behar dugu, ingelesko klase partikularrak emateko. 608201745

Txiribogan asteburuetarako langileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

Sukaldari laguntzaile bat behar dugu Lukainategi erretegi. 680 483 164

Zerbitzaria behar da Lasarteko taberna baterako. Interesatuak deitu telefono honetara: 607110365.

Finantza eta aseguruetakokudeatzailea behar da Buruntzaldean. Baldintzak: Esperientzia gabe aseguruetan, prestakuntza enpresaren kontura eta kotxearekin. Betebeharrak: profesio-naltasuna eta seriotasuna, lanbide-heziketa eta baldintza onekin. Tel. 699 760 873

Udarregi Ikastola partikularrak emateko prest dagoen jendearen zerrenda eguneratzen ari da. Partikularrak emateko prest egongo bazina, bidali mezu bat: gorputzaldiak@udarregi.eus

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Udan umeen zaintzaile lanetan edo klase partikularrak emateko prest nago Usurbilen. 648059422

Saio partikularrak emateko eskaintzen naiz (edozein adinetako haurrei). Irakasle titulua dut eta

iaz Ikastolan jardun nintzen klasea ematen. Ingelesez ere eman ditzaket saioak. 662127029.

Ekaina, uztaila eta abuztuaren haurren zaintzaile lanetan edo partikularreko irakasle gisa jardun nahi dut. Esperientzia zabala dut alor honetan. 688695958

Emakume bat, interna bezela, lan egiteko prest, etxeko lanak edo adinekoak zaintzen. 664192760 / 722 48 39 94

Esperientzia eta erreferentziak ditut. Etxeko lanak, pertsona helduak zein umeak zainduko nituzke, orduka zein egun osoz. 602830982

Usurbilen lan bila nabil zaintza lanak edo etxeko lanak egiteko. Esperientzia handi eta erreferentzia onak. Orduka zein lanaldi osoan aritzeko disponibilitatea. 617857807

Garbiketa eta zaintza lanak egingo nituzke. Esperientziarekin. Orduka, edo lanaldi osoz aritzeko disponibilitatea. 603315126

Garbiketa lanak, edo zaintza lanak egingo nituzke. Disponibilitate osoa daukat eta esperientzia antzeko lanetan. 631818150

Pertsona helduak eta haurrak zaintzeko edo garbiketan aritzeko lan bila nabil. Denbora osoz edo orduka. 602424658

Eraikuntzan, jardineritzan edo bestelako ofizioetan lan egingo nuke. Bizargin moduan aritzeko ere bai. 602424658

Laguntza soziosanitarioa behar baduzu ez izan zalantzarik deituko. Esperientzia zabala osasun eta zaintza alorrean. Kontxu 619827232



Zorionak bikote!!

Dagoneko 9na urte!!

Asteburu ederra pasako dugu!



Zorionak bitxito!

Ekainaren 27an 5 urte egingo dituzu, etxeko txikia handitzen ari zaigu!!!

Mila muxu etxekoen partez. Pila-pila patata tortila maite zaitugu!



Zorionak politta!!

Gure pitxurrina!!! Askok asko maite zaitugu!

Mila esker gure egunak alaitzeagatik.

Aita, ama eta Iraiaren partez.

OHARRA: 2020ko uztailaren 3an aterako dugu hurrengo astekaria. Oharrik edo zorion agurrik baduzue, ekainaren 29a baino lehen helarazi.

Emailaz helbide honetara igorri: erredakzioa@noaua.eus

Orduka lan egingo nuke Usurbil-en garbiketa lanetan zein zain-tza lanetan. 689027247

Lanaldi osoz aritzeko lan bila na-bil. Esperientzia asko 661091863

Adinekoak zaintzen zein garbiki-ta lanak egiten esperientziadu-na. Disponibilitate osoa. Egoitza baimena ere badut. 645067560
Betza

Adinekoak zainduko nituzke. Es-perientziaduna. 666097595.

Lan bila nabil. Adinekoak zain-tzeko prest. 617016290.

Lan bila nabil asteburuetarako, adinekoak zaintzeko. 688712294

Lan bila nabilen gazte bat naiz. Garbiketan edo pertsona hel-duak zaintzen, arratsaldetan edo gauean. Tel. 633 159 088.

Lan bila nabil, pertsona helduak zaintzeko, arratsaldetan edo gauean. 655 986 552

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Se-gituan lanean hasteko moduan. 631 703 566

Lan bila nabil. Garbiketan edo pertsona helduak zaintzen. Se-gituan lanean hasteko moduan. 632 618 839

Lan bila dabilen mutil bat naiz. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketan. Tel. 617 016 290

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen, garbiketan, ostalaritzan edo plantxa egiten. 676 188 411

Lan bila nabil. 655 986 552

Mutil langilea naiz. Pisu baten bila nabil alokairuan altzaririk gabe. Soldatarekin. 666 108 164

Haur edo adinekoak zaintzeko emakume esperientzia han-dia duena eskeintzen da. Baita ere etxeko garbitasunerako. 602568090 / 658706345

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzate-ke. 603 818 142

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzate-

ke. 648 271 757

Lan bila nabil. Helduak edo umeak zaintzen, edo garbiketan. Berehala lanean hasiko nintzate-ke. 617 016 397

Neska arduratsua lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzeko edo garbiketan. 632 285 101

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 632 264 187

Lan bila nabil. Pertsona helduak edo umeak zaintzen. 688 712 294

Ikastolatik atera ondoren umeak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz; gaztea eta euskalduna. Edozer dela ere, dei-tu edo bidali whatsapp mezu bat 688637679, Maddi.

Lan bila nabil. Margolari bezala lan egin dut, garbiketa laneta-rako titulua dut, "catering"ean ere aritu izan naiz. 686 51 35 36.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. 631 864 292.

BESTELAKOAK

Frantseseko klaseak ematen ditut udan, norberaren etxean. 600766068 Jokin

Txirrinda bat opari. 9-12 ur-tekoentzako. 675 712 383. Helbide honetan duzue ikusgai: <https://ibb.co/MZZxQmf>

Isabelita Mandarina Japo-niarrak (txoriak) ditut salgai. 659185107

Ingelesarekin laguntzeko, Usur-bilgo pertsona baten bila nabil, DBH 1ean ikasten ari den nire alabarentzat. 627 18 46 74

AMC markako eltze bat daukat salgai. Oso ondo dago 943363201

Matxaka; sagarra txikitzeko tresna daukagu salgai. Itziar 637974994.

Baserriko kalabazak salgai. 605 783 227.

Estilo guztietako txirikordak (trenza) egiten dira. 658706345, 60256809.

Andatzpe Elkartean bazkide be-rriak sartzeko plaza libreak dau-de. Edozein zalantza argitzeko 669 205 896 (Aitor).

Andatzpe elkarteko bazkidea naiz, plaza saldu nahiko nuke. 699 421 238 Inigo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, pa-tineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu dai-tezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00.

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneako Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	692 898 492	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 25 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Ostirala 26 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Larunbata 27 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 28 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 29 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteartea 30 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Asteazkena 01 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Ekainak 25 - Uztailak 05

Osteguna 02 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 03 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 04 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 05 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
URRUTIA-MARTIN-HERNANI
Etxeberri auzoa, 1. Florida
943 55 77 38

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda ekaina

26 ostirala

- **Zorione Mendez**en "Marrak" uztaren zati baten erakusketa Artzabal jatetxean. Ekainak 15-uztailak 31.
- **Euskal presoen eskubideen aldeko elkarretaratzea** 20:00etan Mikel Laboa plazan.

27 larunbata

- **Zorione Mendez**en "Marrak" uztaren zati baten erakusketa Artzabal jatetxean. Ekainak 15-uztailak 31.
- **Usurbilgo Kultur Birako** lehen bi aste-buruetako sarrerak eskuratzeko azken eguna: usurbilkultura.eus web orrian.

28 igandea

- **Zorione Mendez**en "Marrak" uztaren zati baten erakusketa Artzabal jatetxean. Ekainak 15-uztailak 31.

Elizako erlojuari lotutako erakusketa



Usurbilgo Udalak, herriko beste hainbat eragileekin batera, Salvatore Parrokiako erlojua zaharberritzeko prozesua jarri zuen martxan duela hiru urte. Erakusketa batean azalduko dute prozesua.

Auzolanean zaharberritu duten Elizako erlojuari lotutako erakusketa zabalduko dute Sutegin, uztaila osoan, hilaren 1etik 31ra. Uztailaren 1ean arratsalde irekiko da "herritar guz-

tientzako: erlojua bera, Aginagako Yeregi familia erlojugilearen historia, zaharberritzearen inguruko argazkiak eta beste ikusteko aukera izango da", Usurbilgo Udalak berri eman duenez.

Ostiral honetan, elkarretaratzea

Maiatzean berreskuratu zituen Etxerat-ek azken ostiraletako mobilizazioak. Ekainaren 26an, arratsaldeko 20:00etan Mikel Laboa plazan. Mobilizazioan parte hartu asmo dutenei maskarak jantzi-ta, eta bi metroko tartea errespetatzea eskatzen zaie.

Zorione Mendez en erakusketa Artzabalen

Artzabalen ikusgai duen lan bat zozke-tatzeko asmoa du. Parte hartzeko Artzabal jatetxeko barrako eltxetxoan "boron-datea eman (diru, mezu, iritzi, olerki, goxoki, marrazki... bidez). Ondoren izena eta telefono zenbakia utzi bertan egongo den paper batean".

Datozenak

Kultur Bira uztailaren 1ean abiatuko da, Usurbilgo Artixten Gauarekin

Uztailaren 1erako antolatu den egitaraua sinbolikotik haratago doa. Konfinamenduan zehar herriko sortzaileek egindako erakustaldia saritzeko modu bat da. Ukaezina da hori. Baina era berean, herritar gazteek euren talentua eskenatoki batean plazaratzeko aukera izango dute. Eta hori merezimendu osoz irabazi dute. Prebentzio neurriak zorrotz bete behar direnez, hiru gune ezberdinetan arituko dira. Kontuan izan sarrerak eskuratzeko azken eguna ekainaren 27a larunbata izango dela. Eta honi lotuta dago bigarren ohar bat. Herritar bakoitzak gehien-ere bi sarrera eskuratu ahal izango ditu. Xehetasun gehiago usurbilkultura.eus web orrialdean topatuko dituzue.

Uztailak 1 asteazkena

Artixten Gaua Txokoaldeko Plazan

- Ordua: 20:00.
- Edukiera: 40.

Artixten Gaua Atxegalden

- Ordua: 20:00.
- Edukiera: 70.

Artixten Gaua Skate Parkean

- Ordua: 20:00.
- Edukiera: 70.

Usurbil Autoak
MEKANIKA-KARROZERIA

SUSTITUZIO KOTXEA DOAN!

ZUMARTEGI INDUSTRIALDEA

943 36 10 79

ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859 eta 943 36 13 80

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

www.gertuago.eus



Emaiozu bizitza
herriaril

Usurbilgo merkatariak gertu gaude!

%20
des
kontua
bonuetan

Erosketa seguruak,
deskontu eta guzti!

Zer da Gertuago?

Covid19 birusaren ondorioz ezarritako konfinamenduan negozioa itxi behar izan duten Usurbilgo saltokiei laguntzeko proiektua da Gertuago.

Herritarrek herriko saltokietan erabiltzeko bonuak erosiz, merkatariei lagundu ahal izango diete, aldi berean, herria biziaraiz. **Merkatariei laguntzea herriari bizitza ematea da.** Usurbilgo merkatariak gertu dituzu, esku-eskura!

Abantailak

Herriko merkatariek laguntzeko sortu da Gertuago, eta, aldi berean, herritarrek onurak jasoko dituzte: erosten duzun bonu bakoitzeko, %20ko deskontua izango duzu. Hori, udalaren kontu.



USURBIL
UDALA

gertu@go

Usurbilgo
merkatariak gertu!





Goiz pasak uztailean

astelehenetik-ostiralera

09:00-14:00

8-16 urte bitartean

USURBILEN!



erreserbak: 666 607 447